

ADARRAREN PRIBATUTASUN-POLITIKA

1. Zure datuen tratamenduaren arduraduna:

- Titularra: Adarra Pedagogi Erakundea
- IFK: G48169171
- Egoitza soziala: Bidebarrieta kalea 14, 2. Pisua, esk., 9. bulegoa, 48005 Bilbo
- Helbide elektronikoa: adarraerakundea@gmail.com
- Telefonoa: 944153795

2. Gure pribatutasun-politika

Adarraren bidez datuak lortzeko eta tratatzeko prozesuarekin lotutako alderdi guztien berri eman nahi dizugu.

Ez dugu datu pertsonalak babesteko araudia betetzera mugatu nahi. Halaber, modu argi eta gardenean eman nahi dizugu informazioa Adarrak egiten duen zure datu pertsonalen tratamenduari buruz. Horrela, prozesua ezagutu eta erabakiak hartzeko informazio erabilgarria eta beharrezkoa izango duzu.

3. Nori zuzenduta dagoen pribatutasun-politika

Pribatutasun-politika Adarraren erabiltzaileei dago zuzenduta, hots, honako hauei:

- Adarraren bazkideak
- Antolatzen ditugun jardueretan (hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, ekitaldiak...) parte hartzen duten pertsonak eta esteken eta/edo bertaratze-orrien bidez erregistratzen direnak.

4. Lortzen ditugun datu pertsonalak

Lehenik eta behin, zuk hauxe jakitea nahi dugu: araudiaren arabera, datu pertsonalak zu zuzenean ala zeharka identifikatzea ahalbidetzen digun informazioa dira.

Adarraren kasuan, inprimakien bidez lortzen ditugu datuak:

a) Antolatzen ditugun jardueretan izena emateko inprimakia (hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, ekitaldiak...):

- **Identifikazio-datuak:** izena, abizenak, posta-helbidea eta abar.
- **Harremanetarako datuak:** helbide elektronikoa, telefonoa.

- **Erabiltzaileak emandako datuak:** lantokia.
- **Bestelako datuak:** bertaratze-sinadura.

b) Email bidezko harremanetarako inprimakia:

- **Identifikazio-datuak:** izena, abizenak
- **Harremanetarako datuak:** helbide elektronikoa, telefonoa.

5. Datu pertsonalak hirugarrenei

Adarrak ez die inoiz hirugarrenei lagako erabiltzaileen edo bazkideen datu pertsonalik. Legeak hala agindu ezean, zure datuak Adarrak bakarrik gorde eta/edo kudeatu ahal izateko.

Erakunde eskudun batek, herri-administrazioek, epaitegiek edo auzitegiek gure informazioa behar badute, behartuta gaude ematera, baita legeren batek hirugarren bati informazioa jakinarazteko betebeharra ezartzen badigu ere.

6. Zure baimena behar dugu

Zure baimena behar dugu, izan ere, ezinbestekoa da zure datuak gure datu-basean gorde ahal izateko. Ez dugu hori egingo berariazko baimenik ematen ez badiguzu.

Adarraren kasuan, baimena ematen diguzu bazkide egiten zarenean, antolatzen ditugun jardueretan matrikulatzen zarenean (hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, ekitaldiak...) eta esteken bidez eta/edo bertaratze-orriaren bidez erregistratzen zarenean; kasu guztietan, zure berariazko baimena jasoko da idatziz.

7. Zure datu pertsonalen erabilera

Datuak honako helburu hauetarako erabiltzen ditugu:

- Adarrak eskaintzen dituen zerbitzuak erabili ahal izateko.
- Berritasunei, albisteei eta Adarrak sustatutako ekintzei buruzko informazioa helarazteko.
- Gure zein hirugarrenen jakinarazpenak bidaltzeko.
- Jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez bidaltzeko.

Helburu horiek betetzeko, behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik eskatuko ditugu. Halaber, ezinbestekoak diren eta zuk baimendu dituzun datuak baino ez ditugu erabiliko.

8. Gai hauei buruzko informazioa jasoko duzu

Jakinarazpen elektronikoak bidaliko dira antolatzen ditugun jardueri (hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak, ekitaldiak...), materialen bidalketari edo zuretzat interesgarriak izan daitezkeen albisteei buruzko informazioarekin. Horretaz gain, bazkideek kudeaketari buruzko informazioa jasoko dute.

Mota horretako jakinarazpenak egiten direnean, horiek berariazko baimena eman duten pertsoneri zuzenduta egongo dira bakar-bakarrik.

9. Noiz arte gordeko ditugu zure datuak?

Bildutako datuak mantendu egingo dira jarduera izaten jarraitzen duzun bitartean eta jakinarazpen gehiago jaso nahi ez duzula adierazten diguzun arte. Orduan, zure datuak ezabatuko ditugu.

10. Zure eskubideak

Eskubide hauek dituzu zure datu pertsonalei dagokienez:

- **Sartzeko eskubidea:** Zure datuei eragiten dieten tratamenduen izaerari, iturburuari, jatorriari edo helburuari buruzko informazioa eskatzeko eta hori doan lortzeko eskubidea.
- **Zuzentzeko eskubidea:** Okerrak edo osatugabeak diren datuak aldatzeko eskubidea.
- **Ezabatzeko eskubidea ("ahazteko" eskubidea):** Datu pertsonalak ezerezteko, ezabatzeko edo horien baja edozein mementotan eskatzeko eskubidea.
- **Aurka egiteko eskubidea:** Zure datuen berariazko tratamenduren bat ez egitea erabakitzeko eskubidea.
- **Datuak beste norabait eramateko eskubidea:** Zure datuak beste enpresa, instituzio edo erakunderen bati eta zuri zeuri jakinarazteko eskatzeko eskubidea.
- **Tratamendua mugatzeko eskubidea:** Kasu horretan, datuak balizko erreklamazioak egiteko edo horietatik defendatzeko gordeko ditugu bakarrik.

11. Zure eskubideak nola baliatu

Aurrez aipatutako eskubideak baliatzeko helbide hauetara idatz dezakezu:

- **Posta elektronikoz** adarraerakundea@gmail.com helbidera idatzita.
- **Idatziz**, helbide honetara idatzita: Bidebarrieta kalea 14, 2. Pisua, esk., 9. bulegoa, 48005 Bilbo.

12. Eta zerbaitekin ados ez bazaude

Adarraren datuen tratamenduari buruzko zalantzarik, kexarik, iradokizunik edo bestelako arazorik badaukazu, ez izan zalantzarik eta jar zaitez gurekin harremanetan. Badakigu hobetzeko modurik onenetarikoa bazkideei eta gure jardueretan parte hartzen dutenei entzutea dela, baita haien kezkek, eskaerak eta proposamenak kontuan hartzea ere.

Adarraren jakinarazpenak jasotzeari utzi nahi badiozu, zerbitzuan baja ematea eska dezakezu mezua bidalita honako helbide elektroniko honetara: adarraerakundea@gmail.com

Edonola ere, eskubidea duzu egokitzat jotzen duzunean erreklamazioa jartzeko datuen babeserako agintaritzan, hau da, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

13. Zugandik zer nahi dugun

Mesedez eta bakar-bakarrik eskatzen dizugu arduratsua izateko informazioa partekatzean. Konpromisoa hartzen duzu gurekin datu faltsuak edo okerrak ez emateko. Ezin dugu ematen duzun informazioaren zilegitasuna kontrolatu eta berrikusi; hortaz, ez gara inola ere eman duzun informazioaren ez-zilegitasunaren, ez-legitimotasunaren, aldaketaren, erabilera txarraren edo iruzurraren ondorioen erantzuleak izango, ezta horrek eragindako zehapenenak ere.

Horri dagokionez, datuak ematen badizkiguzu, ulertzen dugu datuak zehatzak eta egiazkoak direla bermatzen duzula, baita hirugarrenenak ez direla ere.

Denon ardura da datuak babesteko politika egokia mantentzea.

14. Politika berriz alda daiteke?

Pribatutasun-politika berriz alda daiteke etorkizunean, esaterako, araudiak edo Adarraren funtzionalitateak aldatzen badira. Aldaketek zure eskubideei edo pribatutasunari nahiz zure datu pertsonalak tratatzeko moduari eragiten badiote, aldeztu aurretik jakinaraziko dizugu, nola eragiten dizuten jakin dezazun eta tratamenduarekin jarraitu nahi duzun erabaki dezazun.

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA